



MIGUEL DE ZUZUARREGI, ALKATE KORTSARIA IZANA

Duela urte gutxi arte kortsaritze gaia literatura, kondaira edo abentura moduan erabilia izan da. Gehienetan, pirata, filibustero edo bukaneroekin izan nahastu ditugu, erabat erratuz.

Egun, historiadore batzu datu eta batipat interpretazio berriak sortarazten ari dira. Hauetako batek korsaritzan XVI eta XVII. mendeetan Euskalherriko kostako herrietan oso

hedatua zegoen ekonomia iharduera garrantzitsu bat ikusten du. Hondarribia gizaldi honetan kortsaritzako bigarren porturik garrantzitsuenak izan zen, penintsula mailan, Donostiaren atzetik.

Urte zailak ziren Ternuako arrantzak beheakada haundia jasan zuen bitartean Atlantikoko merkatal trafikoa gerra giroeagatik negozio arriakutsua baitzen. Egoera honek kortsaritzarako giro aproposa sortaraziko zu.

Artikulo honetan, eta adibide bezala, Miguel de Zuzuarregi kortsario hondarrabitarraren ibileraz notizia emango dugu. Bere bizitzaz gutxi dakigu, ez non, eta zein urtean jaio zen, baina bere ibilaldiak nahiko ondo ezagutzen ditugu. Untzijabe aberats hau, negozio eramankor bat zela ikusiz, sartu zen buru belarri korsaritzan, Untzi kortsario bat osatzeko baldintza batzu bete behar ziren. Lehendabizikoa untxi baten jabea izatea, "*de cierto porte*", alegia edozein untxitxo aski ez zelarik. Gero, kortso baimena lortzeko, fidantzei aurre egiteko beharrezkoa zen ondasun pertsonala. Baldintza hauek armadore edo negozio gizonen bakarrik betetzen zituzten.

Lehenengo berriak 1645 urteko dokumentutan ditugu, armadore eta fragata kapitana gisa azaltzen zaigu Zuzuarregi kortso baimena lortu ostean, holandar untzien artean bahiketa ugari egin zuen.

1653.ean beste gipuzkoar kortsarioei elkartuz Bardeleko itsasadarrari egindako eraso harrigarri batez harrapakin aberats bat jaso zuen. Ondoren eta Ostendera zihoala ekaitz baten erdian hondoratu zen, eta frantsezen eskutan eroriz, preso pasa zuen denboraldi bat.

1657.ean libre zegoela erregeari kortso baimena eskatu zion berriro bi 40 tonako fragatatara, aldi honetan, Miguel de Anbulodi sartu zen bazkide gisa. Untzi hauekin 1659.ean Miguel Zuzuarregi Ingalaterrako "*La Esperanza*" eta Holandako "*El Naranjo*" untziak Bretaina Haunditik Bilbora zihoazenean harrapatu zituen.

1662. urtean Donibane Lohitzunetik 6 legoatara Piter Classen Kapitainaren "*Mostar post*" untzia preso hartu zuen. Untzi holandar honek hamaika marinel zituen eta gerra materiala Lisboara garraiatzen zuen paper faltsuez horniturik.

Handik gutxira erregeren zerbitzura pasa zen Kantauriko itsas-armadan eta Albuquerque Dukearen agintzapean "*San José*" fragatan arituz.


1664. urte inguruan erretiroa eskatu zuen, Hondarribira itzuliz, eta bere lagun eta bazkide zen Tomás de Arsu armadorearekin batera, Ameriketara sei edo zortzi fragataz, kortsaritzan ibiltzeko kortso baimena eskatu zuen, baina erregek ez zion eman. Zuzuarregi, ez

zuen amore eman eta, hurrengo urtean Portugalera kostaldean fragata bat eskuratu zuen.

1675.ean bi fragata zituen, bata "*Nuestra Señora del Rosario*" 45 tonako eta bestea "*San José*" 33koa. Erregek Mediterraneo itsas armadarako eskatu zizkion, baina untziak oso zaharrak zirenez, marinel falta eta dirurik gabe zegoenez zerbitzu hontatik libratu zen.

Handik hiru urteetara errekuaratuta zegoela ematen zuen, "*San Antonio de la ánimas*" izeneko barku berri batekin itsasora atera baitzen.

Aro honetako armadore eta abalemaile gehienak bezala Miguel de Zuzuarregi herriko jauntxoaren taldeko partaide zen eta udal karguak okupatu zituen. 1666, 1669, 1676 eta 1684. urteetan alkatea izan zen eta 1680.ean udal tenientea.



XVII. mendeko
fragata